

LANEKO EUSKARA IKASTAROA: B2 MAILA

EDUKI TEORIKOA: GRAMATIKA

SARRERA	<p>Kutxabanken jarduera esparruari lotuta, laneko euskaran trebatzeko, erakundeko langileei zuzendutako hizkuntza ikastaroa da hemen aurkezten dena. Banketxearen egunerokotasunean eman daitezkeen egoeren bidez, hizkuntzaren aspektu ezberdinak lantzeko aukera izango da.</p> <p>Ikastaroa 12 unitatek osatzen dute, eta unitate bakoitza 3 ataletan dago banatuta: gramatika, berariazko hiztegia eta ulermena. Atal bakoitzean eduki teoriko bat azaltzen da, eta ondoren, eduki horiek praktikan jartzeko ariketak daude.</p> <p>Gramatika atalean aurkeztutako eduki teorikoa da jarraian azaltzen dena.</p>
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none">● Kutxabanken laneko euskaran trebatzea● Euskara mailaren araberako ezagutza lortzea● Berariazko hiztegia ezagutzea● Banketxe arloko kontzeptuak bereganatzea● Ekonomia eta finantza esparruko testuak ulertu, eta lantzeko gaitasuna izatea● Euskararen erabilera areagotzea

1. UNITATEA: Kontu berria

BALDINTZA ETA ONDORIO HIPOTETIKOAK

Hipotesiak egiteko da. Baldintza eta ondoriozko aditz nagusiei -ko/-go partikula eransten zaie.

Adibideak:

Kotxerik edukiko banu, Portugalera joango nintzateke.

Kalean eroriko banintz, negar egingo nuke.

Nor

ni banintz → nintzateke

hi bahintz → hintzateke

hura balitz → litzateke

gu bagina → ginateke

zu bazina → zinateke

zuek bazinete → zinatekete

haiek balira → lirateke

Nor-Nork

Objektua 3. pertsona denean

nik banu, banitu → nuke, nituzke

hik bahu, bahitu → huke, hituzke

hark balu, balitu → luke, lituzke

guk bagenu, bagenitu → genuke, genituzke

zuk bazenu, bazenitu → zenuke, zenituzke

zuek bazenute, bazenituzte → zenukete, zenituzkete

haiek balute, balituzte → lukete, lituzkete

-T(Z)EA NOMINALIZAZIOA

Aditzei -t(z)ea atzizkia gehituz, izen bihurtzen dira.

Egin > Egitea Abestu > Abestea

Begiratu honako adibideei:

- *Irakurtzea txiki-txikitatik irakatsi beharrekoa da.*
- *Hainbeste dantzatzeak oinetan min eman dit.*

	<ul style="list-style-type: none">• <i>Ez dakit joateari utziko diodan.</i>• <i>Baliteke urte batzuk barru dirurik ez erabiltzea.</i>• <i>Litekeena da, ordainketak egiteko, txartela baino, mugikorra nahiago izatea.</i>
<p>2. UNITATEA: Txartela</p>	<p>AHALERA HIPOTETIKOA</p> <p>Zerbait gertatzeko urruneko aukera edota zalantza adierazteko erabiltzen da, eta aditz erroari gehitzen zaio.</p> <p>Adibideak: <i>Etorkizunean, gure asmoak alda litezke.</i> <i>Biharamunean, ostea eduki genezake.</i></p> <p>Nor ni ninteke hi hinteke hura liteke gu gintezke zu zintezke zuek zintezkete haiek litezke</p> <p>Nor-Nork (objektua 3. pertsona denean) nik nezake, nitzake hik hezake, hitzake hark lezake, litzake guk genezake, genitzake zuk zenezake, zenitzake zuek zenezakete, zenitzakete haiek lezakete, litzakete</p>

GERO ETA ...AGO

Joera adierazteko erabiltzen den egitura da. Perpausaren hasieran *gero* erabiltzen da, eta aditzondo edo adizlagunari *-ago* atzizkia gehitzen zaio.

Begiratu honako adibideei:

- *Gero eta nagusiagoa da lker.*
- *Gero eta txakur azkarragoek egingo dute zaintza.*
- *Gero eta jende gehiagori gertatzen zaio hori.*

3. UNITATEA: Kontsumorako mailegua

DENBORAZKO PERPAUSAK

Noiz galderari erantzuten diote. Begiratu honako egiturei:

Ordaintzerakoan

Ordaindu orduko, ordaindu baino lehen, ekintza egiteke dago

Ordaintzean

Ordaintzen den unean, egilea ordaintzen ari dela, ekintza egiten den bitartean

Ordaindutakoan

Ordaindu ondoren, behin ordainduta, ekintza egin ostean

Ekintza egin aurreko unea adierazteko honako egiturak ere erabil daitezke:

Ordaintzerako

Ordaindu dudanerako

HAINBAT ESAMOLDE

Esamolde eta lokuzioetan azaltzen diren hitz elkartu ugari marratxoaz idazten dira:

- Zurbil-zurbil
- Txukun-txukun

- Bakar-bakarrik
- Zehatz-mehatz
- Poz-pozik
- Huts-hutsik

Neurrian erabiliz gero, oso aberasgarriak dira.

4. UNITATEA: BGAEK Baskepensiones

ZEHAR ESTILOA

Norberak edo bestek esan, galdetu edo agindutakoa berriro esateko erabiltzen da. Ikusi estilo zuzenetik zehar-estilora egindako aldaketa:

Adierazpen-perpaua

Ondo bizi naiz → Ondo bizi dela (esan du). Ez du txarto bizi denik esan.

Galde-perpaua

Sagar gorriak jan dituzue? → (Ea) sagar gorriak jan dituzuen (galdetu dizue).

Aginte-perpaua

Liburu horiek jaso itzazu! → Liburu horiek jasotzeko (esan dizut)!

GEHIENTASUNA ETA MAILARIK GORENEKOEN ARTEKOA

Mailarik gorena edo gehientasuna adierazteko, adjektibo edo adberbioari -**en** atzikia gehitzen zaio. Horrekin bat, izenari **-(r)ik** partitiboa gehitzen zaio gehienetan.

on → onen / txar → txarren

Txakurrik onenak ehiztariak dira, eta katurik txarrena, basatia (los mejores perros son los cazadores, y el peor gato, el salvaje).

Norbait edo zerbait mailarik gorenekoen artekoa dela adierazko, -**(e)neta(ri)ko** atzikia eranstean zaio adjektibo edo adberbioari.

Etxeko sagarrak gorrietakoa = etxeko sagarrak gorrietarikoa (de entre las manzanas más rojas de casa)

5. UNITATEA: Inbertsio funtsak

ORTOGRAFIA

Ahozkoan askatasun handia dagoen arren, idatzizkoan eredu estandarrak indar handia dauka. Horregatik, euskara batuan, ortografia zaintzea ezinbestekoa da, hitzaren esanahia hizki baten gorabeheran egon daiteke eta.

Begiratu honakoei:

atso (emakume zahar) - atzo (gaur aurreko egun)

esker (mesedeari emandako erantzun apal) - ezker (eskuinaren aurkako)

hasi (zerbaiti ekin) - hazi (handitu, garatu)

ikusi (begi bidez antzeman) - ikuzi (garbitu)

iritsi (leku batera heldu) - iritzi (norbait edo zerbaiti buruz uste dena)

EGOERAK ETA SENTIPENAK

Izan aditzarekin ez da determinatzailerik erabiltzen (*gose izan, egarri izan, hotz izan, bero izan, beldur izan, lotsa izan...*)

Ikusi hurrengo adibideak:

Gose naiz (Tengo hambre)

Ez dira zuzenak: *Gosea naiz; gosea daukat*

Egarri ginen (Teníamos sed)

Ez dira zuzenak: *egarriak ginen; egarria geneukan*

Beldur ziren (Tenían miedo)

Ez dira zuzenak: *beldurra ziren; beldurra zeukaten*

Egon aditzarekin norik kasu singularra erabiltzen da (*hotzak egon, beroak egon, goseak egon...*)

	<p><i>Hotzak nago: Tengo frío</i></p> <p><i>Beroak zeundeten: Teníais calor</i></p> <p>Zenbait atzizkirekin (-gura, -gale, -lari) aurreko erduei jarrai:</p> <p>Gogoa adierazteko</p> <p><i>txizagura naiz = txizagale naiz edo txizagurak nago = txizagaleak nago</i></p> <p>Premia adierazko</p> <p><i>txizalarri naiz = txizalarriak nago</i></p>
<p>6. UNITATEA: Zibersegurtasun a (Phising-a)</p>	<p>LANBIDEEN ETA JARDULEEN ADIERAZPENA</p> <p><i>Ekintzak egin eta burutzen dituztenak adierazteko, zenbait aditzi -le edota -zaile atzizkia gehitzen zaie.</i></p> <p><i>igorri → igorle</i></p> <p><i>erantzun → erantzule</i></p> <p><i>eskatu → eskatzaile</i></p> <p><i>kontsumitu → kontsumitzaile</i></p> <p>IRUDITU ADITZA</p> <p>Iruditu aditzak zerbaiten edo norbaiten irudia, itxura, adierazten du. Nor-Nork adizkiak dauzka, Nor 3. pertsona singularra dela beti:</p> <p>nik dirudit hik dirudik/dirudin hark dirudi guk dirudigu zuk dirudizu zuek dirudizue haiek dirudite</p>

7. UNITATEA:
Diru-laguntzak:
Erasmus beka

BALDINTZA ERREALA

Baldintza errealean perpausak sortzeko egiturarik erabilienak honakoak dira:

1

Aditz laguntzaileari edo trinkoari **(baldin) ba-** gehituz. Baldin indar handiagoa emateko erabiltzen da:

Bezeroa gaur badator, berarekin egongo naiz.

Informatikariak laster bukatzen ez badu, ezin izango dut lanik egin.

Euria egiten baldin badu, kotxea bulegotik gertuago utziko dut.

*Aditz trinkoz hasten diren baldintzazko perpausetan **baldin** beti erabili behar da:*

Baldin bazatoz, deitu, mesedez.

Baldin badaukate, esan nigana etortzeko.

Ezezko perpausetan, **ez partikula** aditz laguntzaile edo trinkoaren aurrean jartzen da:

Senarrarekin etortzen ez bada, ezin izango du kontratua sinatu.

Online banka ondo ez badabil, gureak egin du!

2

Aditz partizipioari **-(e)z gero** eransten zaio. Baiezko perpausak egiteko erabiltzen da:

Kutxabanken konturik izanez gero, aukera hauek edukiko dituzu.

Hilabete biko muga gaindituz gero, isuna ordaindu beharko duzu.

3

Aditz partizipioari **ezean/ezik** gehituz. Ezezko perpausak egiteko erabiltzen da:

Baldintzekin adostasunik egon ezean, mailegua ezin izango da eman. Kutxabankeko berezo izan ezik, ez dago bidaia honetan izena emateko aukerarik.

KONTSEZIBOAK

Gai nagusiari oztopoa jartzen zaionean, perpaus kontzesiboa erabiltzen da.

1

Partzipioaren aurretik, **nahiz eta**:

Nahiz eta gainerako ezaugarriekin ados egon, ordainketa epeak ez ditut gogoko.

Nahiz eta lankide berria gehienetan atsegina izan, oso zakarra da batzuetan.

Nahiz eta orrialde guztiak bete dituzun, eta nahiz eta gutunetan sartu ez dituzun, ezingo zara bulegotik lehenago irten.

2

Partzipioaren atzetik, **arren**:

Gainerako ezaugarriekin ados egon arren, ordainketa epeak ez ditut gogoko.

Lankide berria gehienetan atsegina izan arren, oso zakarra da batzuetan.

Orrialde guztiak bete dituzun arren, eta gutunetan sartu ez dituzun arren, ezingo zara bulegotik lehenago irten.

8. UNITATEA: Bizitza-asegurua

INDIKATIBOA (IRAGANA)

Nor-Nork

	ni	hi	hura	gu	zu	zuek	halek
nik		hindudan	nuen		zintudan	zintuztedan	nituen
hik	ninduan nindunan		huen	gintuan gintunan			hituen
hark	ninduen	hinduen	zuen	gintuen	zintuen	zintuzten	zituen
guk		hindugun	genuen		zintugun	zintuztegun	genituen
zuk	ninduzun		zenuen	gintuzun			zenituen
zuek	ninduzuen		zenuten	gintuzuen			zenituzten
halek	ninduten	hinduten	zuten	gintuzten	zintuzten	zintuztetzen	zituzten

Nor (singularra)- Nori-Nork

	niri	hiri	hari	guri	zuri	zuei	haiei
nik		nian ninan	nion		nizun	nizuen	nien
hik	hidan		hion	higun			hien
hark	zidan	zian zinan	zion	zigun	zizun	zizuen	zien
guk		genian geninan	genion		genizun	genizuen	genien
zuk	zenidan		zenion	zenigun			zenien
zuek	zenidaten		zenioten	zeniguten			zenieten
haiek	zidaten	ziaten zinateden	zioten	ziguten	zizuten	zizueten	zieten

Nor (plurala)-Nori-Nork

	niri	hiri	hari	guri	zuri	zuei	haiei
hnik		nizkian nizkinan	nizkion		nizkizun	nizkizuen	nizkien
hik	hizkidan		hizkion	hizkigun			hizkien
hark	zizkidan	zizkian zizkinan	zizkion	zizkigun	zizkizun	zizkizuen	zizkien
guk		genizkian genizkinan	genizkion		genizkizun	genizkizuen	genizkien
zuk	zenizkidan		zenizkion	zenizkigun			zenizkien
zuek	zenizkidaten		zenizkioten	zenizkiguten			zenizkieten
haiek	zizkidaten	zizkiaten zizkinaten	zizkioten	zizkiguten	zizkizuten	zizkizueten	zizkieten

DEKLINABIDEA

Deklinabide taulak				
Kasua	Singularra	Plurala	Mugagabea	
			Izen arruntak	Izen bereziak
Nor Nork Nori Noren Norekin Norentzat Zertaz (Zerez)	-a -ak -ari -aren -arekin -arentzat -az	-ak -ek -ei -en -ekin -entzat -ez	-! -(e)k -(r)i -(r)en -(r)ekin -(r)entzat -(e)z	-! -(e)k -(r)i -(r)en -(r)ekin -(r)entzat -(e)z
Non Nondik Nora Noraino Norantz Nongo Norako Partitiboa Nortzat	-(e)an -(e)tik -(e)ra -(e)raino -(e)rantz -(e)ko -(e)rako	-etan -etarik -etara -etaraino -etarantz -etako -etarako	-(e)tan -(e)tatik -(e)tara -(e)taraino -(e)tarantz -(e)tako -(e)tarako -(r)ik -tzat	-(e)n -(e)tik -(e)ra -(e)raino -(e)rantz -(e)ko -(e)rako -(r)ik -tzat
Norengan Norengandik Norengana Norengaino Norenganantz Norenganako Norengatik	-arengan -arengandik -arengana -arengaino -arenganantz -arenganako -arengatik	-engan -engandik -engana -enganaino -enganantz -enganako -engatik	-(r)engan -(r)engandik -(r)engana -(r)enganaino -(r)enganantz -(r)enganako -(r)engatik	-(r)engan -(r)engandik -(r)engana -(r)enganaino -(r)enganantz -(r)enganako -(r)engatik

9. UNITATEA:
Ordainagirien
ordainketa

PASIBOA

Gaztelera, frantsesa edo ingelesak ez bezala, euskarak ez dauka pasiboko eredu garbirik. Dena den, pasibo arrunta ederto erabil daiteke euskaraz, era aktiboko objektu zuzena subjektu bihurtuz, aktiboan subjektu zena instrumental bilakatuz, eta aditz laguntzailea aldatuz:

Gaizkileak Jon tentatu zuen → Jon gaizkileaz tentatua izan zen

Gazteek etxea eraiki zuten → Etxea gazteez eraikia izan zen

SUBJUNTIBOA

Nor

ni nadin

hi hadin

hura dadin

gu gaitezen

zu zaitezen

zuek zaitezten

haiek daitezen

Nor-Nork (Objektua 3. pertsona denean)

nik dezadan, ditzadan

hik dezaan/dezanan, ditzaan/ditzanan

hark dezan, ditzan

guk dezagun, ditzagun

zuk dezazun, ditzazun

zuek dezazuen, ditzazuen

haiek dezaten, ditzaten

10. UNITATEA:
KutxabankPay

BALDINTZA ETA ONDORIOA

Baldintza Nor

Baldintza	Ondorioa	
	Oraina	Iragana
banintz	nintzateke	nintzatekeen
bahintz	hintzateke	hintzatekeen
balitz	litzateke	zatekeen
bagina	ginateke	ginatekeen
bazina	zinateke	zinatekeen
bazinate	zinatekete	zinateketen
balira	lirateke	ziratekeen

ESAN ADITZA

nik diot, nioen
 hik diok/n, hioen
 hark dio, zioen
 guk diogu, genioen
 zuk diozu, zenioen
 zuek diozue, zenioten
 haiek diote, zioten

11. UNITATEA:

Dirua atera

ZENBAKI ETA DATAREN IDAZKERA

Matematika eragiketak

$479 - 28 = 451$: laurehun eta hirurogeita hemeretzi ken hogeita zortzi berdin laurehun eta berrogeita hamaika

$32 \times 4 = 128$: hogeita hamabi bider lau berdin ehun eta hogeita zortzi

$53 + 61 = 114$: berrogeita hamahiru gehi hirurogeita bat berdin ehun eta hamalau

$48 : 4 = 12$: berrogeita zortzi zati lau berdin hamabi

$\sqrt{324}$: erro hirurehun eta hogeita lau

36^2 : hogeita hamasei ber bi

Daten idazkera

Ohartu 1, 5 eta 10 zenbakiekin, kontsonantez amaitzeagatik, -eko erabili behar dela. Gainerakoetan, bokalez amaitzeagatik, -ko baino ez. Hona hemen adibide batzuk:

2001/03/28: 2001eko martxoaren 28a

2015-08-04: 2015eko abuztuaren 4a

2007/12/05: 2007ko abenduaren 5a

HITZ LOTURAK

Kutxabankeko hainbat izen eta aditzen artean konbinazio ugari egin daitezke. Behatu hurrengo loturei:

txeke

txekea sinatu

txekea kobratu

txekea bete

kutxazain

kutxazaina hondatu

kutxazaina blokeatu

kutxazaina berriztu

12. UNITATEA:

Hizkuntza ohiturak

HIZKUNTZA OHITUREN GAINEKO HAUSNARKETA

Lehenik eta behin hausnarketarako zenbait galdera proposatzen dizkizugu:

Zure ustez, lanean euskaraz zenbat egiten duzu?

Inoiz ez / Gutxi / Batzuetan / Sarri / Askotan / Beti

Ingurune hauetan, oro har, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Bezeroekin

Lankideekin

Saileko bileretan

Zuzendaritzakoekin

Lanean atsedenaldira

Lankide berriekin

Hornitzaileekin

Beti erdaraz / Gehienetan erdaraz / Euskaraz eta erdaraz / Gehienetan euskaraz / Beti euskaraz

Ezezagunekin, lehen hitza zein hizkuntzaz egiten duzu?

Beti erdaraz / la beti erdaraz / la beti euskaraz / Beti euskaraz

Zuk euskaraz egin eta gero erdaraz erantzuten dizutenean nola jarraitzen duzu?

Euskaraz dakiela baldin badakit

Euskaraz ez dakiela baldin badakit

Ezezaguna denean

Euskaraz / Tartekatua / Erdaraz

Bezero erdaldunik aurrean dagoenean, bezero edo lankide euskaldunarekin euskaraz egitea zer iruditzen zaizu?

Hezibide edo edukazio txarrekoa da / Hezibide edo edukazio onekoa da /

Ez dauka zerikusirik hezibidearekin edo edukazioarekin

Zuk euskaraz egin eta gero *euskaraz dakien* batek erdaraz erantzuten badizu zer sentimendu sorrarazten dizu?

Haserrea / Pena / Erasoa / Poztasuna / Harridura

Eta zuk erdaraz egin eta gero baten batek euskaraz erantzuten badizu zer sentimendu sorrarazten dizu?

Haserrea / Pena / Erasoa / Poztasuna / Harridura

Zure euskararekiko jokabidea nolakoa da?

Egokia / Aldatu nahi dut / Ez daukat aldatzeko asmorik

Euskararekiko jokabidea aldatzekotan, zergatik aldatuko zenuke?

Gusturago sentitzeko / Besteengan eragiteko / Neure buruarekin koherenteago sentitzeko / Bezeroengana gehiago hurbiltzeko / Ikasitakoa praktikan jartzeko / Nire nortasunaren atal delako / Bestegatik

EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO IRIZPIDEAK

Motibazioa:

- Barne-motibazioa: "Jakin-minagatik", "errespetuagatik", "euskarak liluraten nauelako", "mundu hori gal ez dezadan", "integratzeko", "euskara salbatzearren"... Barne-motibazioaren ezaugarri nagusia: kanpoko eraginik edo presiorik eza da: "nik nahi dudalako egiten dut", "barnetik ateratzen zaidalako", "nik neuk erabakitzen dut".
- Kanpo motibazioa: Norberarengandik kanpo hautematen den premia: "nire kide guztiek egiten dutelako", "bestela arraroa naizelako", "nire lanerako beharrezko dudalako". Kanpo-motibazioaren azterketatik ondorioztatzen dena: baldintzak aldatuko balira edo kanpo-presioa murriztuko balitz, ziur aski euskara gutxiago erabiliko litzateke.

Hizkuntzaren erabilera indartzeko, barne-motibazioan eragin behar da. Barneko motibazioa alde afektiboarekin lotuta dagoenez sustrai

sendoagoak ditu eta ez dago horrenbeste kanpoko egoeren menpean. Euskararen aldeko benetako apustu pertsonal bat egiteko, motibazio-mota hau eraginkorragoa da.

Emozioen maneia:

Ematen dizkiguten erantzunek gugan izan dezaketen eragin negatiboa leuntzeko baliabide ezberdinak erabili ditzakegu:

- Enpatia: erdaraz egitea errazago egiten zait: ulertzen dizut, baina niretzako euskaraz egitea erosoagoa da
- Lasai hartzen ikasi: ulertzen ez didala eta erdaraz egiteko eskatzen didanean, urduri jarri ordez, lasaitasunez hartzea komeni da
- Bestea gure lekuan jartzen saiatu: zergatik aldatu behar dut nik hizkuntza? Bestea saia dadila nire lekuan jartzen
- Euskaraz dakien inor ez dagoela esaten badidate, erreklamazio-orriak eskatu eta ez diot gatazkari biderik emango
- Sentimenduak adierazi: euskaraz hartuko nauen inor ez datorrelako haserre nago
- Umorearen erabilera: Barrabasen bizarrak! Zeruetako tronuan dagoen aitona zenari deitu beharko al diot euskaraz dakien norbait aurkitzeko?

Asertibitatea

Asertibitateak auto-afirmazioa edo baieztapena esan nahi du, edo, beste era batera esanda, egoerei lasaitasunez eta segurtasunez erantzuteko gaitasuna litzateke. Asertiboak ez diren erantzun mota bi daude: erantzun agresiboak eta erantzun pasiboak.

Portaera asertiboa izatea ahalik eta egoera gehienetan zure hizkuntzan hitz egiten saiatzea da. Zure hizkuntzan komunikatzea ezinezkoa denean, adibidez, besteak ulertzen ez dizula esaten badizu, orduan bakarrik joko duzu erdarara. Portaera denak bezala ikasi egiten da, beraz, zure esku dago asertiboagoa izatea. Portaera onuragarria da, zeure burua gehiago baloratzen eta besteak errespetatzen erakusten duena baita. Pertsona

asertiboa gustura sentitzen da bere hizkuntzan hitz egiten duenean.

Portaera asertiboa duenaren ezaugarriak:

- Erabakiak hartzen ditu
- Nahiak eta beharrak lasaitasunez adierazten ditu
- Ideia eta iritzi propioak adierazten ditu
- Mugak onartu eta norbere akatsetatik ikasten du
- Akatsak zuzentzen ditu

Irizpideak

Lehen hitza beti euskaraz izango da, bai euskaldunei, bai erdaldunei, bai ezezagunei.

Euskalduna den bezeroak erdarara jotzen badu, euskaraz jarraituko dut, hark erdaraz egiteko eskatzen ez badit. Eskatuz gero, naturaltasun osoz, erdaraz jarraitu.

Lankide euskaldunekin eta euskaraz ulertzen dutenekin euskaraz egingo dut, bai banaka, bai taldeka.

Bileratan euskarari toki handiagoa emateko gogoia adierazi.